



NBE-K EUSKO JAURLARITZA ERREKONozITU DU HEZKUNTZA-JARDUNBIDE EGOKIAK DIRELA ETA

- NBEk kudeaketa publikoaren arloko munduko bost jardunbide egoki errekonozitu ditu, horien artean *EA Erako Arreta Goiztiarreko Eredua*.
- Euskadin jada ezartzen ari den protokolo horrek ikasteko zailtasunak zein gaitasun handiak adin goiztiarretan hautematea du xedetzat.

Nazio Batuen Garapenerako Programak eta Eskualde Batuen Erakundeak (ORU Fogar) *Euskal Autonomia Erkidegorako Arreta Goiztiarreko Eredua* ez ezik, horren baitan abian jarri den *Haurren Garapenaren Jarraipenerako Protokoloa* ere errekonozitu du hezkuntza-esparruan, kudeaketaren arloko munduko jardunbide egokiak direlakoan. Horrenbestez, Euskadin sortutako eta gure ikasgeletan jada aplikatzen ari diren esperientzia hori nazioartean zabaldu eta ezarri ahal izango dute hala nahi duten hezkuntza-komunitate guztiek. Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak ere horixe nahi du, protokolo hori mundu osoan erabiltzea, munduko ume guztien garapena eta ikaskuntzaren kalitatea hobetearren.

Eusko Jaurlaritzaren Kanpo Harremanetarako Idazkaritzaren ordezkariak proiektuaren aurkezpenean eta sariak banatzeko ekitaldian parte hartu dute Rio de Janeiron (Brasilen), Eskualde Gobernuen VII. Munduko Gailurraren barruan.

Haur Hezkuntzan abian da jada Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Politika eta Kultura Sailak prestatu eta osasun- eta gizarte-sistemekin koordinaturiko *Haurren Garapenaren Jarraipenerako Protokoloa*. Ikasgelan bertan ikasleei antzeman dakizkiekeen garapen-zailtasunak adin goiztiarrean hautematea eta horien gainean esku hartzea ditu xedetzat. Hartarako, baina, prestakuntza behar dute horrelako neska-mutilez arduratzen diren irakasleek, eta alderdi hori bereziki nabarmentzen du *Euskal Autonomia Erkidegorako Arreta Goiztiarreko Eredua*.

Protokolo horrek aplikatzen duen *Garapenaren Ohiko Zaintzari* esker, ikasleen garapen-zailtasunak bezalaxe gaitasun handiekin lotutako zantzuak ere hauteman daitezke. Garapen-zailtasunak, halaber, askotarikoak izan daitezke: zentzumenenak (entzumen edo ikusmenekoak...), fisiko eta motorrak, hizkuntza eta komunikazioarekin lotutakoak, arazoak hauteman eta konpontzearekin zerikusia dutenak, edota gizarte-harremanen arlokoak, besteak beste. Horrelako kasuek, adin goiztiarrean hauteman ezean, arazoak sor ditzakete umeen garapenean, ikaskuntzari dagokionez, hain zuzen. Haur Hezkuntzan era horretako zailtasunak hautemanez gero, egoki esku hartzeko aukera dago, haien garapen osoan oztupo izan ez daitezen.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila 2015-2016 ikasturtean hasi da *Arreta Goiztiarreko Eredua* zein horri lotutako *Haurren Garapenaren Jarraipenerako Protokoloa* aplikatzen, eta Haur Hezkuntzako 3.000 irakasleri baino gehiagori eman die prestakuntza horretarako. Lehen urte honetan 2 eta 3 urtekoen ikasgeletan jarri da martxan. Datorren 2016-2017 ikasturtean berriz, 4 eta 5 urtekoen ikasgeletan abiaraziko da.